

Oroitzapenaren aldeko panfletoa: errealtateari bizkar emanda bizi izateak atzendura sustatzea dakar

 Begizolia | © 2025-12-12 16:30



Panfleto bat atzunduraren kontra

Pello Salaburu

Erein, 2025

Hasmentan: burutazio adina burutapen

Panfleto bat atzunduraren kontra liburua ez da aiseki sailkatzen. Idazlan bat panfleto gisara aurkezteko, ausardia eta abilezia behar dira. Panfleto hitzak jite gutxiesgarria dauka. Panfleto hau bortxaren biktimen aldeko arrazoiketa-saioa da. Biktimak gizabanako bortxatuak dira. Biktimarioaren kontrako eta biktimen aldeko saioa da. Saiatze hori, berez, ez da samurra. Izan ere, bortxa egilearen

–biktimarioaren– arrazoibidean sartzea eromenaren bidean sartzea da.

Oroitzapenaren aldeko panfletoa lerrobunua paratu diot gogoeta honi. Lerroburu ausart eta erraza irudi diezazuke. Alta bada, ez da nirea, Pello Salaburu egilearena baizik. Panfleto honen bitartez, norbanakoon bortxa-jarduera salatzen du, baita bortxaren zioaren zergatiaz gogoetatzera gonbidatu ere. Gure gogoia urratzen duen libelo moduko bat duzu. Bortxaren arrazoi antzuei buruzko erantzunak xerkatzen ditu, orrialdez orrialde. Kausitu al dituz? Bai ote? Ez? Nork bere irakurketa eta interpretazioa eginen ditu.

Atzunduraren kontra saiakera honek –kendu diezaiogun liburuari *panfleto-epitetoa* une

batez– den-denok interpelatzen gaitu: berau irakurtzera menturatu eta ausartzen garenok nahiz berau irakurtzea errefusatuok dutenak; errefusatu dezaketanak. Nago, lehenbizikoak bigarrenak baino aise gutxiago –izanen– garela. Alta bada, zuzenki edo zeharka, gutxitan edo askotan, norbanako guztiok nahasita gaude liburuan kontatzen denarekin. Bortxarekin *inbolukratua* eta *implikatur*a gaudela idatz dezaket, alta bada, *nahastuta* hitza ere hagitz egokia iruditzen zait. Zehaztu aldera: bortza zuzenki praktikatu dutenak eta berau gauzatzen laguntzen dutenak ez dira parekagarriak. Ezta bortxa beraren aurrean *in pasibo* geratu direnak ere, hots, deusik erran gabe, zirkunik egin gabe.

Bortxa –biolentzia, indarkeria, bortizkeria...– norbanakoon izaera doilorraren agerbide arrunt zekena da. Pertsonon gaitasun ezaren agerbide arbulagarriena. Bortxa gure izatearen espresio izukaitzena da. Gizabanakoon arrazoibidearen mugaren adierazlea. Norbanakoon emozio eta pasio kontrolaezinen agerbidea. Bortxa, egoera muturrekoetan agertzen den *nahasmentu mentala* da. Bortxak bortxari erantzuten dio ardurenean. Ez beti ere, haatik. Bortxa-espresio-molde asko baitira.

Gizakia eta bortxa bereizi ezinak begitantzen zaizkit. Alabaina, eta horregatik, naski, nork bere komenentziara azaldu nahi izaten du iraganeko bortizkeria. Atzendura –ahantzura– oroimenean hozitzen den mina dugu. Iraganaren oroitzeak min ematen digu, eta ez oroitzeak atzendura dakar. Atzendura pairatzeak, berriz, izan garena errepikatzea dakar. Erran nahi baitut: ikasi dugun zerbait berriz erabiltzeko –edo ez erabiltzeko– gaitasuna galtzea dakarkigu atzundurak.

Anartean: liburuaren lerroei amiñi bat atxikiago

"**Atzendura zer den**". Ahantzuraren definizioa duzu liburuaren abiaburuan, baitezpadakoa. Atzunduraren kontrako saio honek, bortxarekin eta haren inguruarekin nahastutako izen anitz bildu ditu: bortxa-egileen izenak eta bortxa-egileak babestu dituztenen izenak. Izan estatuaeren babespeko bortxakeria burutu dutenen izenak –estatu terrorismoarena, bame– baita haren kontra jazarri direnen bortxa-egileen izenak. Legez ezarritako bortxaren kontrako bortxa "egokia" hastapenean, terrorismora lerratua bere bilakabidean.

Bortxa-espresio anitz daude. Eta den-denak politikoak dira. Agerraldi psikotikoak ere egoera politikoan ondorioa dira. Liburuan bortxa-moldeen egile anitzak deskribatuak daude, deskribatuak eta salatuak. Euskaldunon historia berriko indarkeriaren pasarte-bilduma konpletosa da nolabait, konpleto adina konplexua. Baita, hala berean, mendealdekoko XX. gizaldiko indarkeriaren pasarte-bilduma esanguratsua izan ere.

"**Boterea arrisksutua da**". Bortxaren protagonisten izenak berebizikoak dira historia entelegatzeko: Hitler edota Stalin, konparazioenera. Ordea, ez horiek bakarrik eta bereziki. François Mitterrand, Carrero Blanco, Jose Miguel Beñaran Ordeñana *Argala*, Felipe Gonzalez ere, aintzat hartzekoak dira. Bakar batzuk aipatu aldera, noski. Elemenía dira. Boterea arrisksutua da, eta are arrisksuagoa bihurtzen da, boterearen bortizkeriari erantzuneko bortizkeria jazaritzen zaionean.

“Atzentzeko eskubidearen parean, memoriaren eskubideak beti du lehentasuna” (Paco Etxeberria). Mendealdekoko egungo sistema demokratikoaren ildoan, eskubideak aldarrikatzearen aldarrikatzeaz, norbanakook gure betebeharrak atzendu ditugu. Nora begiratzen dugu uesteko demokratok? Gaur egungo sistema nagusiaren –sistema demokratikoa delakoa– aurkako sustatzaille sutsuen arabera, uestzko askatzaile erromantikoak, faxistak beti dira besteak.

Ez gara ohartu edota ez dugu jabetu nahi, hauex: biktimak bando batekoak edo beste batekoak izan, biktimak beti direnez galtzaile, hots. Jendartea petxero bihurtzen da, jendarteak berak koherentzia galtzen duelako. “Koherentzia nolakoa, halako duintasuna”. Errainu hori baina, inoiz sendoa izan bada, hutsala da gaur egun. Pertsonok duintasun elea erabiltzearen poderioz, duintasun elearen zentzua –eta esanahia– galdu dugu.

Bortxak jendeon izatasuna galarazi egiten du. Bortxak pertsonon izate eta jarrera logikoak puskatzen ditu. Aldarrikatzen ditugun printzipioekin talka egiten du. Gure uestzko koherentzia apurtzen du. Horiek horrela, gure izatasun bortitza aintzat hartu –nahi– gabe bizi gara. Izanik ere, jendea hilketen aitzinean “deus gertatu ez balitz” legez geratu izan bada, zergatik geratu da? Bortxaren ezarpenak eta bortxaren praktika sistematizatuak norbanakoon gogoia kamusten dute. Bortizkeriak gizabanakoon gogoia eta memoria *paralizatu* egiten ditu.

“Zerbait eginen zuen”. Bortza iraultzailearen aldeko *soflama* –izan– duzu hori. Hildakoak zer egin duen egundo ezagutu gabe, haren aurkako akusazioak inola ere frogatu gabe, kondenatua izan da. Hots, legearen arabera *justizia* egitea nekeza bada, ba, pentsa, legerik gabeko uestzko *justizia* egiten denean zer suertatzen den. *Justizia* delakoa noria erraldi kontrolaezin gisako bat bihurtu zaigu.

Gizartearen historia atzendura da. Orain, uneon, ezin ditugu –euskaldunon kasura etorri– euskal gatazka delakoaren ondorio mingarriak jasan eta gurekin eraman. Gure gogoaren babesa kausitu ezinean, ahantzurara jotzen dugu. Laborriaren aurkako babesa isilatasunean xerkatzen dugu. Ideologiaren menpekoak gara. Onen eta gaiztoen arabera *jendartea* sustatzen dugu, ongia eta gaizkia aiseki bereiziz. Biak ala biak, ona eta txarra, norbanakoon ezaugarri osagarriak direla atzenduz. Fundamentalismoa –erlijiosoa zein filosofikoa nahiz politikoa– gure itxurakeriaren berebiziko mekanismoa izaki.

Iraganeko fundamentalismoa nolakoa, egungo *populismoa* halakoa. Kasu, ordea, iraganeko fundamentalismoa zer den jakitea errazagoa da egungo *populismoa* zer den baino. Izan ere, populismoa kontzeptu hutsala da. Polisemikoa. Laxoa, lausoa eta zehaztugabea. Ideologia guztietan zabalduakoa arakala. Fenomeno politiko kontrajarriak parekatzen dituená. Edozertarako eta zernahitarako baliatzen dugun *komodina*. Horratx hizkuntzaren beraren higaduraren adibide bat.

Ziklo-aldaketaz ziklo-aldaketa gauzatzen bide da historia. Boteretsuek darabilten *soflama* duzu. Kasu, ordea, boteretsuak ez dira soilik aldian-aldiko estatuen egituretako boteretan daudenak. Aldian-aldiko gobernuaren oposizioan borrokan eta lehian dihardutenak ere botere suerte baten jabe dira. Denok dugu botere parte bat. Halarik ere, gezurretan bizi gara, gure botere-ahalmena ezkututzen dugu, disimulatzen dugu. Ideologiak itsutua gaude, errealtateari bizkar emanda erosoago bizi gara, errealtatea behatzeko ahalmena kamustuta, naski.

Espainiako trantsizio demokratikoa deituaren bitartez –bakar batzuen interesen arabera *z*iklo-aldaketa–, faxistak demokratik bihurtu ziren, eta demokratik bailliran dihardute gaur egun ere. Kontrakarrean, faxisten aurkako *iraultzaileak* –iraultza ezin gauzatuaren eraginez totalitaristak bihurtuta– demokrazian birmoldatu eta berregituratu ziren halaber. Euskal iraultzaileen ziklo-politikoaren aldaketa ezagutu dugu berriki. Sistema politikoa irauli nahi zutenek Konstituzioaren beraren marko azpian dihardute orain, “faxistatzat jo izan duten” demokraziaren beraren babespean. Malkoak euri balira (Xabier Lete).

“Klaro dabilen gizonak ez du arrazoi txarrik merezi”, Jose Manuel Lujanbio *Txirritaren* errana duzu. “Zer dio isiltzen denak isiltzen denean”, diosku Bernardo Atxagak. Alabaina, zein da isiltzen denaren arrazobidea? Norbanakook gure azala ez ezik, gure izaera aldatzeko dugun ahalmena ikaragarria da. Gizabanakoon izaerak laborria somratzen du.

Ahantzura –atzendura goxoa– ezaugarri unibertsala dugu. Historiaren norian –eta memorián– bueltaka dabilen gure idiosinkrasiaren adierazle. Boteretsuek –bortxa suerte guztion erantzutzaile– ez ditutze iraganean gertatuak kontatu nahi, ezta euren aurkako bortxa praktikatu dutenak ere. Izan ere, kontrakarreko bortxa praktikatu dutenen artean beti –izanen– dira *petxeroak*. Galtzaileen aldean badaude are galtzaileagoak direnak.

Estatuaren aldean nahiz estatuaren aurkakoan aldean beti dira X izenpean babesten direnak. Bi aldeetan giza-lakiaok daude, haiek izaki ere *biktimak*. Ordea, biktimarioak ez du bere burua biktimatzat jo nahi. *Biktima* dela onartu izateak borrokatzeko behar izan dituen ideiei uko egitea baitakar. Bere “buruaz beste” egitea, alegia. Giza-historiako *biktimak* izan dira ere, jendarte-doilorraren ondoriozko *biktimak*. Biktimak, tamalez, eskubide –botere eta ahalmen– pizarrrik gabeko pertsonak izatera iragaten dira.

Erlijioaren menpeko nola ideologiaren menpeko norbanakoak gara. Paradisu zerutiarrak hala nola lurreko paradisuak infernua dakarte. Paradisu zerutiarren ideiak sua sustatzen du. Lurreko demokraziaren idealizazioak, berriz, bortizkeria somratzen du.

Segidan: saio honekiko nire atxikimendua

Emozioz eta pasioz idatzitako panfleto-libelo honek ez du inor indiferente utziko. Engoitik errana dut. Saiakera suerte honek arrazoibidean sartzera gonbidatzen gaitu. Arrazoiketa lantzea ahantzuraren aurkako antidotoa dela iradokitzen dugu.

Izanen dira bain ziur ere, engoitik errana, saiakera oldartsu hau irakurriko ez dutenak – egilearen nolakotasuna, haiek kontrakotasuna–, ideologiaren aurreiritziak kateaturik. Norbanakook geure ideologiaren menpekoak baikara. Gure ideologiaren arabera *errealtatean* bizi baikara. Errealtatea eta ideologia antonimoak dira, ordea. Ideologiak errealtatearen ukatzaile nagusienak baitira. Errealtateari bizkar emanda bizi izateak atzendura sustatzea dakar. Errealtatea ukatzearen poderioz, memoriari uko eginez bizirauten dugu.

Panfleto bat atzunduraren kontra saiakerak gizabanakoon pasioen eta emozioen –erlijioaren eta politikaren– zergatiak argitzen lagundu diezaguke. Pello Salaburuk norbanakoon kontraesanak azaleratu ditu, baita bere kontraerreak agertu ere. Bera ere pasioen menpe bizi izan dela aitortu du. Bera ere, naski, alde bateko bortxakeriaren aitzinean bere begirada errealtetetik at paratu izanagatik etsituta dago. Damututa dagola dio berak. Inor ez da bere izateari uko egiteaz eta errealtateari bizkar emateaz salbuesita. Etsipenari aitzi egiteko, ordea, nork bere burua zen den eta nolakoa izan den agertzea ahantzuraren aurkako berebiziko ariketa da.

Saiakera honen ildoan betiere, bizitza akigarria da –bejondeiela zorion guztizko bizitza dutenei–. Hala izanik ere, estatuaren –sistema ezarriaren– jardueraren aldeko erabateko konfiantza dutenei –zorioneko horiek–, baita estatuaren kontrako erabateko deskonfiantza duenari –zoritarreko horiek–, hala nola jendarte *inerte* delakoari –euren eraginikortasun eza lagun, ez zorionekoak ez zoritarrekoak–, otoi eta arrene, horiei guztiei opa diet ez ditzatela ahantzi guztion artean eragin ditugun biktimak.

“Gora gu eta gutarrak” delakoa hizpide –erranairu hori ez da liburuari ageri, badaezpada diot–: horratx “geure guztizko” esapide xenofobia. Alegia, “gora gu eta gutarrak eta gaineraokok izorra daitetzela”. Errenerakoak etsaiak dira, naski. Ahantzura sustatzen duen espasidea dugu. Mota horretako erranairuen ariara, etsaiak eragindako biktimak bertzerik ez ditugu aintzat hartzen. Ordea, halakorik aldarrikatzen duena ez da jabetzen pertsona ezdeusa dela. Etsaiarekiko harreman moldeak egiten baitu pertsona nor izatea.

Akitzearen akitzez: liburuaren estiloaren –estetikaren– gaineko zenbait zertzelada

Panfletoa. Libeloa. Saiakera. Literatura. Liburu guztiek –*stricto sensu* entelegaturik– badute panfleto, libelo, saiakera edo literaturaren kutsurik. Liburu honek lau ezaugarri horiek bame-biltzen ditu. Ez da literatura, jakina. Literaturaren ezaugarri nagusia fikzioa baita, eta berean ez dago halakorik.

Liburu orok literaturaren zertzeladak daramatzate beren baitan. Euskarak berak badu berezko estetika. Pello Salaburu arizkundarraren *bazanera* da liburu honen jite bereizgarrietako bat. Ez da aztarna bakarra. Panfleto-libeloa-saiakera hau literaturaren bidean ehunduta dago. Neronek horien arrasto batzuk utzi dizkizut engoitik. Zuk zeuk hagitz gehiago kausituko dituzu hain ziur ere.

Datsegiti

Iruzikinak

Utzi iruzkina:

Erabiltzaile izena

Eposta

Captcha

☐ I'm not a robot

Bidai